

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2012ko martxoaren 14a. IX. urtea. 2.377. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Lander Etxeberria Euskal preso ohia

«Deklarazio polizialean han zer egiten nuen ez nuela ulertzen esan nien»

Duela hilabete inguru utzi zuten aske Etxeberria billabonatarra; epaiketaren zain dago orain eta ez du errugabetasuna ez den beste aukerarik aurreikusten

ETArekin lotura lanak egitea leporatzen diote; «Aitor Esnaolari bost eguneko inkomunikazioan, hau da, torturapean, hori esanarazi zioten», esan du preso ohiak ◊ 6



Lander Etxeberria, Remi Ayestaran herrikidearen omenez jarritako oroitarriaren ondoan. A. IMAZ

Ahozkotasuna eramango du Ahoz Ahok Tolosako hainbat txokotara

Bihartik hasi eta igandera bitarte emanaldi ugari egongo dira; herriko zein nazioarteko ipuin kontalariak entzuteko aukera izango da ◊ 3



Gorostiaga, Mantxo, Karrera, Mendi eta Larrañaga, aurkezpenean. I.G.L.

Pala partidekin hasiko dira bihar, Berastegiko Gazte Festak

Etzi eta larunbatean ere ekitaldi ugari izango dira: triki poteoa, kontzertuak, bakarrizketa saioa, sagardo dastatzea eta toka txapelketa ◊ 7

Martxoaren 19an hasiko da Buruntzunzin elkartearen Mendi Astea

Amezketako mendi taldeak aste osoko egitaraua prestatu du; Luis Sagastumek izango du lehen emanaldia eskaintzeko ardura ◊ 4

Lan erreformaren aurka egiteko giza katea egingo dute

Tolosako Trianguloatik abiatuko da mobilizazioa larunbatean, 12:00etan; LABek, Bilgune Feministak eta gazte independentistek egin dute deialdia ◊ 2



→ Laburrak**Tolosaldeko 15Mren deialdia aste honetarako**

GIZARTEA Tolosaldeko 15M mugimenduak antolatuta, *La Toma* filma proiektatuko dute bihar, 19:30ean, Antonio Maria Labaien kultur etxean. 2001. urtean Argentinan bizi izan zena islatzen du fillm dokumentalak, eta globalizazioaren aurkako jarrera erakutsiko du. Ostiralean, berriz, hilak 16, krisiaren inguruko eztabaida egingo dute 19:30ean. LAB, ELA, ESK, CNT, CGT, CCOO eta UGT sindikatuak gonbidatu dituzte.

Amarozko Beti Gazteak taldea Burgosera

AISIA Amarozko Beti Gazteak jubilatuen taldeak txangoa antolatu du Burgosera. Datorren martxoaren 24an joango dira, eta 06:45ean irtengo dira Amaroztik. Hiriko txokorik nabarmenenak bisitatuko dituzte, eta gosaria eta bazkaria ere egingo dituzte bertan. 10 euroren truke joan ahal izango da, eta 653 74 71 92 telefonora deitu behar da izena emateko.

Kirikiñoren afariko izen ematea zabalik

GIZARTEA Kirikiño aisialdi taldeak afari erraldoia antolatu du datorren apirilaren 21ean, beren 25. urteurrena ospatzeko. Taldekide ohiak, taldekideak, gurasoak, begiralean nahiz laguntzaileak gonbidatu nahi dituzte, eta afarian parte hartzeko, kirikiñoaisialdia@gmail.com helbidea eskuragarri jarri dute. Bertan, informazio gehiago eskatzeko aukera izango da, eta baita izena ematekoa ere. Martxoaren 30a izango da horretarako azken eguna.

Tolosa Kantariren entsegua, bihar

KULTURA Tolosa Kantariren hurrengo saioa hilaren 31n izango da, eta bihar egingo dute entsegua, 20:00etan, musika eskolan.



LABeko, Bigune Feministako eta gazte independentisten taldeko ordezkariek, agerraldian. I. GARCIA LANDA

Lan harremanen euskal esparrua aldarrikatuz, giza katea egingo dute

Tolosaldeko LAB sindikatuak, Bilgune Feministak eta gazte independentistek egin dute deialdia

Itzea Urkizu

Raxoiren gobernuak onartu duen lan erreformaren aurka izango den greba orokorraren atarian, eta lan harremanetarako euskal esparruaren beharra aldarrikatuz, giza katea egingo dute larunbat honetan, Tolosaldeko LAB sindikatuak, Bilgune Feministak eta gazte independentistek.

LAB sindikatuko ordezkariek azaldu dutenez, «2008an krisia lehertu zenez geroztik, hainbat erreforma jasan» dituzte euskal langileek. Adibide moduan, honakoak aipatu dituzte: 2010eko ekaineko lan erreforma, 2011ko urtarrileko pentsioen erreforma,

2011ko ekaineko negoziazio kolektiboaren erreforma, eta 2011ko abuztuko lan erreforma.

Honen aurrean, sindikatu abertzaleak «langileek gero eta eskubide gutxiago» dituztela diote: «Pentsio duin bat izateko eskubidea erabat murriztu digute». Bide honetan, Madrilen onartu duen lan erreforma «euskal langileariaren aurkako eraso latza» dela uste dute, eta «benetan ondorio larriak» ekarriko dizkiela langileei. Hasteko, jada lanean ari direnei eragingo diola azpimarratu dute, erreformak «jada lanean ari direnei eragiteko mekanismoak ezartzen dituelako». Halaber, langabetuei ere onurarik ez diola ekarriko azaldu dute, «erreformak ez duelako enplegurik sortuko, suntsitu baino». Azkenik, merkatuari ere erreferentzia egin nahi izan dio sindikatuak: «Enpleguak ez du bizi baldintza duinik ziurtatuko».

Egoera honen aurrean, Tolosaldeko Bilgune Feministak «kapitalismo patriarkalaren ondorioa

begi bistakoa» dela nabarmendu du: «Eskualdeko langabezia tasa handiena emakumeona da, eta horri emakumeon zati handi bat tasa horretatik kanpo geratzen dela gehitu behar diogu. Izan ere, biztanleria aktibotik at gaude emakumeon kopuru handi bat». Era berean, jardunaldi partzialtako langile gehienak emakumeak direla azpimarratu dute, eta baita sektore feminizatuetako lan baldintzak «kaskarragoak» direla ere. Finean, Raxoiren erreformak «egoera honen sakontzea» ekarriko duela diote: «Absentismoa gaitik kaleratzeek emakumeoi eragingo digu gehienbat, baita jardunaldi partzialtako aparteko orduak egiteko aukerak ere. Emakumeok gehiengoa garen, eta desarauturik dauden sektoreak, are gehiago desarautuko dira gure antolatzeko ahalmena eta indarra mugatuz».

Tolosaldeko gazte independentistek, berriz, neurri berriek «gazte izate soilagatik» eragiteaz gain, «langileari zati izateagatik ere eragiten dietela uste dute: «Oraina eta etorkizuna baldintzatzen dizkigu erreformak».

Lan erreformaren aurka borrokatzeko «hamaika arrazoi» dituztela gaineratu dute gazteek, eta besteak beste, honakoak aipatu dituzte: formakuntza kontratuak 30 urtera arte luzatuko dituztela, eta hiru urteren ondoren, enpresak berriro ezarri ahal izango duela formakuntza kontratua; delaunaldi berriak «edozein momentutan» kaleratuak izango di-

rela diote; azkenik, negoziazio kolektiborako eskubiderik ez dutela izango salatu dute. Hori guztiari, gaur egun, Tolosaldeko enplegu bulegoan 25 urte azpiko 249 langabete daudela gaineratu diote gazteek.

Euskal langileen esparrua

Agerraldian, krisia lan erreformaren benetako arrazoiak ez dela azaldu dute eragileek, eta aitzakia moduan erabili dutela: «Patronalak boterea ia mugarik gabe handitzeko aitzakia da. Erreformak ahalmen handiagoa ematen dio patronalari, kaleratzeko, soldatak jaisteko eta hitzarmen kolektiboak ez betetzeko».

Espainiako gobernuaren erreforma berria, EAJren abstentzioaren laguntzaz onartu izana ere gaitzetsi dute. Honen harira, Tolosaldean bertan EAJk hartutako erabakiak «pairatu» dituztela nabarmendu dute, «industriarako lurraz suntsitu, eta birkalifikazioarekin etxebizitzak sortu» dituztela salatuz. Eskualdean kaleratuak izan diren langileen datu zehatzak eman dituzte jarraian: Gorostidin 169, Tolosan 62, Amarozen 100 eta Salvadoran 146.

Horrela beraz, lan erreforma berriak lan harremanetarako euskal esparrua eratzea eta erakitzea «behar-beharrezkoa» dela erakusten duela nabarmendu dute agerraldian, eta eredu sozial bat aldarrikatzeko, datorren larunbatean, 12:00etan, Trianguluan hasiko den giza katean parte hartzeko deia egin dute.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak**SALGAI**

■ **Pisua.** Tolosaldeko Alde Zaharrean, Korreo kalean, 67 metro karratuko pisua dago salgai. Egoera onean dago; berritua dago, eta igogailua dauka. Intesiraga duen edonork, dei dezala 653 70 88 36 telefono zenbakira.

Bertso-zakuto afaria egingo dute Lizardi elkarteak, ostiralean

Galtzaundik eta Lizardi elkarteak antolatu dute ekimena, eta bertan bertsoak abesteko aukera izango da

I. Garcia Landa

Lizardi elkartearen eta Galtzaundiren arteko elkarlanaren ondorioz, hilaren 16an, ostirala, Bertso-zakuto afaria egingo dute Lizardi elkarteak. «Bertso ezagun eta ezezagunak» abesteko aukera dela diote antolatzaileek. Antton Iztueta altxotarra da ekimenaren bultzatzailea, eta bertan «zakutotik atera eta jendearen aho-belarrietan ipiniz, denak elkarrekin ondo pasatzea» da helburua.

Bertso zakutoan musikatutako bertsoak eta musikatutako gabekoak biltzen dira, hau da, aspaldiko bertsolarien bertso musikatua (Bilintx, Xepelar, Txirrita, Pello Errota...) eta gaur egungo (Lizaso, Lujanbio, Egaña, Peñagarikano) bertsolarien zenbait bertso, bertsozaleen ahots jartzeko.

Afarian parte hartzeko txartelak Xirimiri eta Orbela tabernan eta Galtzaundi Euskara Taldearen bulegoan daude salgai.

Paisaia lantzeko argazki ikastaroa antolatu du kultur etxeak

I. Garcia Landa

Paisaia lantzeko argazkigintza tailerra antolatu du Tolosako kultur etxeak. Argazkiak ateratzeko nolabaiteko ohitura duen jendea-ri zuzendutakoa da, hau da, norberaren kameraren oinarritzko funtzionamendua ezagutu eta argazkiak ateratzeko hobetu nahi dutenei. Hiriko paisaia eta natura landuko dituzte ikastaroan. Bestalde, ikastaroaren barruan, Photoshop programako zortzi saio ere egingo dituzte, gutxira 24 ordu.

Hilaren 26an hasiko da, eta astelehen eta asteazkenetan egingo dute, 18:30etik 21:30era. 75 orduko iraupena izango du eta Inigo Royo da irakaslea. Parte hartzaileek gutxienez 16 urte izan behar dituzte. Tolosaldekoek 162,75 euro ordaindu behar dituzte eta kanpokoek 244,50 euro.

Ahokotasunaren garrantzia zabaldu eta aldarrikatu dute

Ahoz Aho jaialdia aurkeztu dute: bihurtik igandera arte hainbat kontalariren saioak izango dira Tolosan

Imanol Garcia Landa

Larunbatean martxan jarri den Ahoz Aho jaialdiaren aurkezpena egin dute. Izan ere, bihar hasi eta igandera arte hainbat ekitaldi izango dira Tolosan. Tartean, ostiralean Leidor aretoan egingo den ahokotasunaren gala. Aurkezpenean, antolatzaile lanetan aritu diren Intujai taldeko May Gorostiaga eta Bea Larrañaga, Joxe Mari Karrere eta Irantzu Mantxo ipuin kontalariak eta Edurne Mendia Kultura zinegotzia izan dira. Guztiek nabarmendu eta aldarrikatu dute ahokotasunaren garrantzia eta horrelako jaialdi batez gozatzeko aukera izatea Tolosan.

Leidor aretoko galaz gain, bes-



Kultur etxeako areto nagusian egin dute Ahoz Ahoren aurkezpena. I.G.L.

te hainbat lekutan izango dira saioak, May Gorostiagak azaldu duenez: «Gure asmoa izan da jaialdia hainbat txokotara zabaltzea. Auzo elkarrekin –Amarotz, Otsabi, San Esteban–, tabernetan –Orbela eta Errota–, Bonberenean eta HHIn egingo dira emanaldiak». Haur eta helduei zuzendutakoak izango dira. Joxe Mari Karrere, bere aldetik, parte hartuko duten kontalari guztiak ekartzeko egin den ahalegina nabarmendu du.

Hain justu, nazioarteko kontalariak izango dira Tolosan egunotan eta herriko eta eskualdekoak ere bai. Tolosatik, Irantzu Mantxo, Ginars afrikar dantza taldeak eta Pailaztana klown taldeak parte hartuko dute, eta Jone Gorostazu berastegiarrak ere bere lekutxoak izango du ostiralean egingo den galan. Emanaldi guztiak doan izango dira, Leidor aretoko gala izan ezik. Horretara joateko sei euroko sarrera ordaindu beharko da.



Tolosako Udaleko eta euskarazko komunikabideen ordezkariak, atzo. R.C.

Hitzarmena sinatu du udalak euskarazko komunikabideekin

Erredakzioa

Tolosako Udalak hitzarmena sinatu du eskualdeko euskarazko komunikabideekin, hau da, Galtzaundi Euskara Taldearekin, Txolarre Irratiarekin, 28 Kanalarekin eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hirtza egunkariarekin.

Sinatze ekitaldian, Ibai Iriarte alkateak azaldu duenez, hitzarmena behar beharrezkoa da, izan ere, «euskarazko presentzia bermatu behar dugun» esan du. Era berean, hitzarmenaren helburua euskara tolosarren «komunikazio, transmisio eta eguneroko hizkuntza» izateko laguntza ematea dela esan du. «Gure erreferentzia-

ko komunikabideak zarete eta zerbitzu oso garrantzitsua ematen diezue herritarrei. Egoera ekonomikoa beti izan da zaila euskarazko komunikabideentzat, baina orain gehiago, eta guk lagundu egin behar dugun» gaineratu du.

Bere aldetik, Inaki Irazabalbeitiak, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeko burua, Tolosako udal gobernuarentzat euskarazko komunikabideak oso garrantzitsuak direla esan du, eta Tolosan komunikazio hizkuntza euskara behar duela izan gaineratu du. «Euskarazko komunikabideak erreferente izan behar dira», gaineratu du.

↓ Egitaraua

MARTXOAK 15, BIHAR

- 16:00. Laura Dippolito eta Jhon Ardila, Helduen Hezkuntza Iraunkorrean.
- 17:30. Apika, Amarotzen, haurrei zuzenduta.
- 20:00. Enekora eta Fallilou Diagne, Otsabin.
- 22:30. Irantzu Mantxo eta Jhon Ardila, Orbela tabernan.

MARTXOAK 16, ETZI

- 18:00. Badut eta Sasa Guadalupe, San Estebanen.
- 20:30. Ahokotasunaren gala nagusia, Leidor aretoan.

MARTXOAK 17, LARUNBATA

- 11:30. Apika, Bonberenean, haurrei zuzenduta.
- 17:00. Irantzu Mantxo eta Laura Dippolito, Otsabin.
- 23:30. Badut eta Gonzo Velazko, Errota tabernan.

MARTXOAK 18, IGANDEA

- 11:30. Alabazan, Bonberenean, haurrei zuzenduta.

Atzeratu egin dute Manu Azkarateren epaitegiko agerraldia

Maiatzaren 15ean joan beharko du tolosarrak; Espainiako Audientzia Nazionalaren paperak ez dira Paura iritsi

I. Garcia Landa

Manu Azkarate tolosarrak Pauko epaitegira joan zen atzo, epaile aurrera deituta baitzegoen, Espainiako Audientzia Nazionalak eskatutako euroaginduren harira. Atzoko agerraldia, baina,

maiatzaren 15era atzeratu dute, Espainiako Audientzia Nazionalak bidali behar zituen paperak ez direlako iritsi. Bestalde, Azkarateren osasunaren inguruan bere abokatuak eraman behar zituen paperak ere ez dira aurkeztu. Horrek guztiak atzeratu du prozesua. Azkarateren egoera salatze-ko manifestazioa deituta zegoen atzo arratsalderako Tolosako Trianguloa plazan. Azkarateren senide eta lagunez gain, Gernikako akordioa sinatu zuten alderdiek eta zenbait gizarte eragilek egin zuten deialdia.

LANGILEENTZAT ETA LANGABETUENTZAT IKASTAROA

TOLOSALDEA Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak adierazten du:

Martxoaren 19an, "Inari-telebista seinaleen jasotze eta banatze instalazioen muntaketa (60or)", "Klimatizazio eta aireztatze instalazioen muntaketa (80or)", "ACCES, oinarritzko (50or)" eta "Kaltzearen kudeaketa (20or)", ikastaroak hasten direla eta lekua dogoela, ikastaroak langile eta langabetuentzat zuzenduta daude eta doanekoak dira.

Izen ematea, ikastetxean, 943-651147.

RAFA ALBISU LASA

Luis Sagastumerekin hasi eta mendi ibilaldiarekin bukatuko dute Mendi Astea

Astelehenetik aurrera, besteak beste, Asier Izagirre, Alex Txikon edo Marronen bizipenak izango dira

Eneritz Maiz Amezketan

Astelehenean hasiko da Amezketako Mendi Astea. Buruntzunzin mendi elkarrekin antolatzen du, eta aste osorako emanaldiak prestatu dituzte. Gainera, bertso afaria eta mendi ibilaldia ere izango dira.

Lehen eguna, Luis Sagastume herritarren eskutik etorriko da. 2011ko eta 2012ko irteeretakoa argazkiak eta esperientziak kontatuko ditu, 20:00etan hasita. Asteartean, Maroko bizikletaz ikusteko aukera izango da Mikel Gurrutxaga eta Izaro Galartzen eskutik.

Asteazkenean, 20:00etan, Asier Izagirre tolosarraren txanda izango da: *Azken sei zortzimilakoak* hitzaldia eskainiko du. Ostegunean, berriz, Marronekin solasaldia egingo dute: *Lehen eta gaur egungo mendizaleatasuna*. Ostiralean, 19:30ean, Alex Txikonen *G1 neguan* emanaldia eskainiko dute.

Emanaldi hauek guztiak, Amezketako kultur etxean izango dira. Hilaren 23an, gainera,



Asier Izagirrek bere azken sei zortzimilakoek hitz egingo du. I.T.

Alex Txikonen emanaldiaren ondoren, bertso afaria egingo dute.

Iker Zubeldia eta Julio Soto bertsolariak izango dira, goiko frontoian egingo duten afarian. Txartelak erosi egin beharko dira, eta ohiko tabernetan jarri dituzte salgai. Txartelak erosteko azken eguna, hilaren 18a, igandea, izango da, eta 25 euro ordaindu behar da.

Bukatuko, mendi ibilaldia

Mendi Asteari bukaera emateko, hilaren 25ean, igandean, mendi ibilaldia egingo dute. 08:00etan herriko plazan elkartuko dira, eta antolatzaileek adierazi dutenez, oraindik ibilbidea ez dute gutzitz zehaztu. Mendiaz gozatu nahi duenak aukera izango du, Amezketan.

↓ Mendi Astea

MARTXOAK 19, ASTELEHENA

■ **20:00.** Luis Sagastumerekin 2011ko eta 2012ko irteeretakoa argazkiak eta esperientziak.

MARTXOAK 20, ASTEARTEA

■ **20:00.** Maroko bizikletaz Mikel Gurrutxaga eta Izaro Galartzenekin.

MARTXOAK 21, ASTEAZKENA

■ **20:00.** Asier Izagirreran, *Azken sei zortzimilakoak* izango da.

MARTXOAK 22, OSTEGUNA

■ **20:00.** Marronekin solasaldia: *Lehen eta gaur egungo mendizaleatasuna*.

MARTXOAK 23, OSTIRALA

■ **19:30.** Alex Txikonen *G1 neguan*.
 ■ **Ondoren.** Bertso afaria, Iker Zubeldia eta Julio Sotorekin, goiko frontoian.

MARTXOAK 25, IGANDEA

■ **08:00.** Mendi ibilaldia egingo dute, herriko plazatik abiatuta.

2012ko udal aurrekontua onartuko dute, bihar

Ez ohiko osoko bilkura egingo dute, 20:30ean; 2012ko aurrekontuen onarpena izango dute gaien artean

2011ko azaroaren 5 eta 6ko uholdeetako kalteak konpontzeko laguntzak eskatzea Gipuzkoako Foru Aldundiari; eta ezinduentzako behin-behineko txartel bat luzatzea.

Diru laguntzak onartzea

Gai ordenarekin jarraituz, 2012. ekitaldiari dagokion kultur eragilean diru laguntza eskaerak onartzea; Amezketako Sustapen Arloa kudeatzeko hitzarmena onartzea eta alkatea ahalmentzea hitzarmen hau sinatzeko; Amezketako Udalaren eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren arteko hitzarmena, laguntzak eta prestazioak kudeatzeko informazio trukeerako; eta azken puntuak, batzordeetako gaien informazioa emango da.

Bukatzeko, galderetarako eta erreguetarako tartea izango da.

E. Maiz Amezketan

Bihar, hilak 15, 20:30ean ez ohiko osoko bilkura egingo dute Amezketako udaletxean. Lehenik eta behin, otsailaren 23an eginiko ohiko bilkuraren akta agiria onartuko dute, eta jarraian, alkatetzatza eabazpenen berri emango da.

Ondoren, A.I.U.-8 Insausti-Zubillaga auzoa 8,2 gauzatze unitateko hirigintza exekuziorako kontzertazio hitzarmenaren onarpena; 2012ko ekitaldirako udal aurrekontuak eta udaletxe-ko langileen organikoa onartzea;

→ Laburrak

Iam Raros eta Anonimos taldeen kontzertuak, etzi

ALEGIA > Alegiako Gaztetxean kontzertuak antolatu dituzte. Hilaren 16ean, ostiralean, izango da. Kasu honetan, Iam Raros eta Anonimos taldeak igoko dira taula gainera. Kontzertuak 22:30ean hasiko dira, eta bi talde hauen musikarekin gozatu nahi duenak sarrera erosi beharko du, bost euro ordainduz.

Loatzo musika eskolakoek Zarautzen joko dute

MUSIKA > Loatzo musika eskolako ikasleak, hilaren 16, 17 eta 18an, Zarautzera joango dira Trikitixa eta Biolin topaketetan parte hartzera. Igandean, hilaren 18an, 12:00etan Zarauzko Lizardi aretoan eskainiko dute emanaldia. Datorren astetik aurrera, berriz, eskualdeko herrietan emango dituzte kontzertuak. Lehena, hilaren 19an, Anoetako Auditoriumean izango da. 18:30ean hasiko da trikitixa emanaldia.

Erosi
KILOMETROAK 2012ko jantziak
euskalherriko plaza.com-en:

www.euskalherriko plaza.com

PLAZA

UNEGIN

Irudia & Anoeta



OTXOA BIKAIN XAKEAN

Igandean amaitu zen eskola arteko Xake Txapelketa. Benjamin, alebin eta infantil mailan 24 parte hartzaile izan ziren. Anoetako ikasleek urtean zehar egiten duten lanak bere fruituak eman zituzten. Eraitzak bikainak lortu dituzte. Maila guztietan txapelketak irabazlea, Oier Otxoa izan da. Ekaitz San Sebastianek, Irati Ormazabalak, Iker Artolak, Iraia Otxoak, Irune Merinok, Unai Zubeldiak eta Lander Zabalak ere lan benetan txukuna egin zuten. HITZA

Albizturgo Santa Marina auzoan errepidea moztu dute

Erredakzioa Albiztur

Gipuzkoako Foru Aldundiak azaldu duenez, Albizturgo Argisaingo Santa Marina auzoan errepidea moztu dute. Astelehenean, hilak 12, hasi ziren lanekin, eta hilaren 28a, asteazkena, bitartean iraungo dute lan hauek. GI-3042 errepideko 2.000 eta 2.500 kilometro puntuen artean egingo dute mozketa zeharkako ebakidura hobetzeko lanak egin ahal izateko.

Mozketak aipatu egunetan, 08:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara izango dira, eta asteburuetan errepidea ireki egingo dute.

o alegialdea@hitza.info



Villabonatik Ollogoienera oinez joango dira gaztetxoak. HITZA

Duela zazpi urteko ohiturari heldu nahi dio Malkar taldeak

Asier Imaz Amasa-Villabona

Malkar aisialdi taldeak duela zazpi urteko ohitura berreskuratzea erabaki du aurtengoan. Villabonatik irten eta Ollogoienera irteera egingo dute, 1996/97an jaiotako gaztetxoekin, abuztuaren 2an.

Ibilaldian Berastegi, Lekunberri, Aralarko San Migel, Urdian eta Zudaire ezagutuko dituzte. Aisialdi taldeak azaldu dutenez, «gutxi gorabehera egunean lau orduko bidea egingo dugu, hau da, goizean ibiliz eta arratsaldean atseden hartuz. Gauetan, kanpoan egingo dugu lo eguraldiak laguntzen badu, horrela gertatuko ez balitz, aterpetxe edo etxeetan egingo genuke». Ibilbidea ez dute motxila handiarekin egingo, izan ere, horretarako autoak egingo dira: «Motxila txikiarekin ibiliko ginatke, hau da, ibilaldia egiteko soilik beharrezkoak diren gauzekin».

Villabonatik abuztuaren 2an irtengo dira, eta Ollogoyenera

8an iristea aurreikusten dute. Abuztuaren 12ra bitarte, Nafarroako herrixka honetan egongo dira, hainbat ekimen eginez. Malkar aisialdi taldeak azaldu dutenez, proposamenetara zabalik daude.

Izena emateko eguna, finkoa
Ibilaldira joan nahi duten gaztetxoek izena emateko aukera gaur, hilak 14, edukiko dute. Zatorran egongo da horretarako aukera, 18:00etatik 19:00etara.

Garrantzitsua da zerrendan izena ematea, izan ere, Malkarretik azaldu dutenez, irteera aurrera ateratzeko beharrezkoa izango da kopuru minimo batetara iristea: «Hamar gazteko muga jarri dugu, izena gutxiagok emango balute, ibilaldia bertan behera utziko genuke».

www.malkar.tk webgunean dago informazio gehiago, eta malkarastialditaldea@gmail.com helbidera idatzita ere argitu daitezke zalantzak.

Zizurkilgo Udalak laguntzak emango dizkie familia ugariari

Hobaria ondasun higiezinaren gaineko zergarako izango da, %50eko ehunekoa aplikatuz

Erredakzioa Zizurkil

Zizurkilgo Udalak familia ugariari esku bat botatzeko asmoa agertu zuen martxoaren lehen kaleratu zuen Udal Bandoarekin. Laguntza hori, ordaindu behar diren zergatan aplikatuko litzateke, murrizketen bidez. Udalak azaldu duenez, ondasun higiezinaren gaineko zergaren %50eko hobaria aplikatuko die familia ugariaren titulua izan, eta baldintza hori justifikatu dezaketen subjektu pasiboak.

Hobaria 100.000 euroko balio katastralera arte aplikatuko da.

Eskaerak egiteko epea hilaren 26an amaituko da, eta ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar da udal txean: NAN eta indarrean dagoen familia ugariaren titularen fotokopiak; errolda eta elkarbizitza ziurtagiria; titularrak eta onuradunek ohiko bizilekuaz gain inolako higiezinik ez dutela adieraziko duen Foru Ogasunak emandako ziurtagiria eta 2011ko OHZren ordainagiriaren fotokopia.

Informazio gehiago nahi duten herritarrek, udal txera joan edo 943 69 10 12 telefono zenbakira deitzeko aukera dute.

Irudia Tolosa



NAFARROAKO KONKISTA EZAGUTUZ

Bai Euskal Herriari ekimenak lau hitzaldi antolatuta ditu martxoan, astelehenero bat, Euskal Herriaren historia ezagutzeko helburuarekin. Atzo, bigarren hitzaldian, Patxi Abasolok *Orreagatik Amaiurrera: Nafarroako konkista* gaiaren inguru-

ruan hitz egin zuen. Hilaren 19an hirugarren hitzaldiaren txanda izango da, Iñaki Egañaren eskutik. Bertan parte hartzeko aukera zabalik dago; informazio gehiagorako 652 71 58 00 telefono zenbakira deitu behar da. A. IMAZ

ASTE HONETAKO ESKAINTZAK!

1 IDRA KOLTXOIAK

BI BURLAKO BISKOLASTIKO 70 zml-ko NEURRIAN

Lehenengo prezioa: 70€
Deskontua: 4€42a
Aurtengoa: 28€
Prezioa: 42€

ESKAINTZA

2 SHUYANA

LASER PROMOZIOAK

Otsailaren 27tik martxoaren 12ra

Itzerondoak 5 abonua: 420€
Aurrezkitakoa: 120€
300€ orain
Bespakak 5 abonua: 280€
Aurrezkitakoa: 75€
105€ orain

ESKAINTZA

3 TOLOSA INDOOR KARTING

Berezko itzularen prezioa: 10 minutu, 13 €

ESKAINTZA BEREZIA

HELDUENTZAKO ITZULIA 10 €
UMEENTZAKO ITZULIA 6 €

ESKAINTZA

4 VILLABONA OPTIKA

9%20KO DESKONTUA EMPORIO ARMANI MARKAKO EGUZKITAKO BETAURRENDETAN

monturak

ESKAINTZA

Moztu dagokion kupoia, aurkeztu dendan eta gozatu abantailaz

ESKAINTZAK!

Asier Imaz Amasa-Villabona

Bermepean eta hainbat betebeharrekin askatu zuten Lander Etxeberria (Villabona, 1968) duela ia hilabete. Besteak beste, hamabostean behin epaitegira joan beharra dauka sinatzera.

Epaiketaren zain, esperantzaz aurkitzen da preso ohi billabonatarra.

Bigarren atxiloaldiaren ondoren, berriro ere ongietorri jendetsu batekin hartu zaituzte herrian.

Gustura hartzen den zerbait da. Hori bai, harrera egunean esan nuen, bi nahikoa zirela, espero nuela hirugarrenik ez suertatzea.

Bermepean irten zinen espetxetik otsailaren 16an. Espero al zenuen erabaki hori?

Ezer ez zegoela ikusita, hasieratik askatasun eskaerak egiten hasi ginen. Marlaskak helegitea ukatu egiten zuten, eta bigarren aretoa jartzen genuen. Hemen, Marlaskak esandakoa errepikatzen zuten, eta beraz, esperantza galduta nengoen. Sumarioa itxi aurretik ez nuen pentsatzen askatuko nindutenik. Nahiz eta egia den askatu nindutenean sumarioa ixtear zutela, orain esan baitigute itxi dutela.

Sumarioa itxi ondoren, zergatik ikusten zenuen aske gelditzeko aukera?

Sumarioa ixten dutenean, Auzitegi Nazionaleko beste areto batek hartzen du afera. Bigarren aretoa, ikerketa garaian Marlaskarekin ibili den aretoa, prozesuan ez da gehiago sartzen. Epaiketa eman behar duen aretoak, gauzak gehiago neurtu behar ditu, gero lotsagarri ez gelditzeko. Orduan, kalera maiatza inguruan aterako nindutela pentsatzen nuen. Azkenean, ordea, bigarren aretoak hartu du erabakia, sumarioa itxi aurretik eta fiskalaren iritzia erabakia.

Zure aurkako auzia nola aurkitzen da une honetan?

Auzitegi Nazionaleko lehen aretoak hartu du Aitor Esnaola eta bion aurkako auzia. Hemendik, fiskaltzari, nire defentsari eta akusazio partikularari pasako diote, AVT ere tartean dela uste baitut. Gero, fiskalak bere eskaera egingo du. Ez dut uste artxibatzeko eskatuko duenik, ikerketan nire askatasunaren aurka agertu baita; kolaborazio delitu batean oinarrituko dela uste dut. Hortik aurrera, epaiketa edozein unetan izango da.

Data finkorik ez dago, beraz.

Berez, atxiloalditik lau urteko epea daukate epaiketa egiteko. Ia bat pasa da, eta hiru gelditzen zaizkie. Printzipioz lehenago egingo dutela uste dugu, auzian bi bakarrik gaudelako eta gure afera lehenbailehen gainetik kentzeko, areto horrek euskaldunen aurkako auzi asko baititu. Epaiketa dagoenaren kezkarakin nago, baina logikaz begiratuta, ez dut errugabetasuna ez den beste hipotesirik ikusten.



A. IMAZ

Lander Etxeberria • Euskal preso ohi

Inkomunikazio garaian bizitako une latzak gogoan dituela epaiketaren zain dago Etxeberria; bigarren aldiz utzi du atzean espetxea billabonatarrek, eta herritarrek ere bero hartu dute.

«Ez dut errugabetasuna ez den beste hipotesirik ikusten epaiketan»

Noiz jakin zenuen kolaborazio delitu leporatzen zizutela?

Nire aurkako akusazioa zein zen ez zidaten esan Auzitegi Nazionaleko iritsi arte; Marlaskak esan zidan. Guardia zibilek inkomunikazio garaian, galdera oso orokorrak egiten zizkidaten, eta zehaztasun bat hartzen baldin bazuten, 1999 aurreko gauzen inguruan zen. Espetxean 2001ean sartu ninduten, ondorioz, aurreko militantzia baten inguruan galdetzen zidaten, ondorio juridikorik ez zuten gauzez ari ziren, eta horren jakitun ziren. Bere garaian errudun kontsideratu ninduten, espetxealdi bat ordaindu nuen, eta kanporatua izan nintzenean aske gelditu nintzen.

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Grande Marlaska epailea zertan oinarritzen da kolaborazio leporatzerako garaian?

Legorretako Aitor Esnaolak ez dakit nolako komandoa osatzen zuela zioen Marlaskak; erakundearekin haria galdu zuela eta ni-

regana etorri zela laguntza eske, harremana berriro berreskuratzeko. 2010eko udan, irailan esan zuela uste dut, Frantziako Gan herrian erakundearekin hitzordu bat lortu omen nien. Hori da akusazio zehatza: lotura lanak egitea.

Ba al dakizu epailea ondorio horretara nola iritsi den?

Aitor Esnaolari bost eguneko inkomunikazio garaian, hau da, torturapean eta galdeketa, hori esanarazi zioten. Baina badaude hainbat gauza bitxi guzti honetan: gertatzen dena da, guk ezin dugula frogatu.

Zein da lehena?

Galdeketa egiten ari zitzaizkidan bitartean, konturatu ziren nik ezer esatekorik ez nuela. Erabat txikituta nengoen, negarrez, zotinka... guardia zibil bati «egia esaten ari da» aitoritzen entzun nion. Galdeketa bukatuko zela zidudien, baina beste batzuk etorri eta jarraitu egin zuten. Hori bai, gutxi; uste dut beste poltsa saio

bat egin zidatela, ondoren konortea galdu bainuen. Ziegarako itzulerako bidea bi edo hiru minutu ziren, eta ez naiz gogoratzen nola joan nintzen, nire kabuz ez behintzat. Hurrengo goizean polizia deklarazioa egin behar nuela esan zidaten, eta bidean, guardia zibil batek erdi ezkutuko mehatxu batez, ez deklaratzeko esan zidan; beraie denborarik ez galdurazteko, eta poliziaiek egiten dizkidaten galderei ez erantzuteko.

Beraien helburua ez al da aurkakoa izaten? Hau da, polizia deklarazioa lortu nahi izaten dute, ezta?

Beraiek bazekiten ni dena ukatzea joango nintzela. Ez banuen ezer esaten, denbora irabazten zuten euren muntaia egiteko. «Deklaratzeko badiat, akabatu egingo naute» esaten nion nire buruari, eta buruari bueltak eman eta eman ibili nintzen. Azkenean, deklaratzera erabaki nuen.

Ezer berririk galdetu al zizuten?

Espetxetik atera ondorengo ezer-

taz ez zidaten galdetu. Bukarera ea zerbait gehitu nahi nuen galdetu zidaten, eta baietz esan nien. Zerbait sartu nahi zidaten, baina ez nekien zer zen, ondorioz, espetxetik atera eta gero, ETAn ez nintzela berriro militatzen hasi esan nien, ez nuela ezer egin. Ezer leporatzen ez zidatenez, ez nuela ulertzen han zer egiten nuen esan nien. Hori deklarazio polizialean jarri zuten, eta irakurri eta sinatu egin nuen.

Ondoriozik izan al zuen deklarazio horrek?

«Ziegara itzuli eta akabatu egingo naute», besterik ez nuen pentsatzen. Ez deklaratzeko esan zidaten eta... hor sinatu behar izan nuen inkomunikazioaren hiruro eguneko luzapena, edo uste dut hori zela. Beldurrak jota nengoen, eta ordubetara edo, ziegara etorri eta eraikuntzatik atera ninduten. Deklarazio polizialean, aurrez dudak gaitz bat medio, odol pixka bat bota nuen, eta pentsatu nuen beldurtu egingo zirela eta ospitalera eramateko atera nindutela eraikuntzatik. Baina nire ezusterako, epailearen aurrera eraman ninduten, Auzitegi Nazionalean.

Inkomunikazio berraren eguna zen...

Bai, eta orduan buruan zera sartu zitzaidan: «Epailearen aurretik pasa eta berriro euren eskuetan utziko naute». Hori ez da posible, baina momentu horretan ez zara konturatzen. Epailearengana iritsi eta hor galdetu zidaten lehen aldiz Gan herriaren inguruan.

Zer erantzun zenuen?

Ez nekiela zertaz ari zen esan nion Marlaskari. Poliziak ere horren inguruan ez zidala ezer galdetu, eta hori entzuten nuen lehen aldia zela.

Zein da beste bitxikeria?

Espetxerako bidean Aitorrekin (Esnaola) joan nintzen autoan. Erabat harrিতa zegoen, «eta hik zer egiten duk hemen?» galdetzen zidan. «Etxeketa, ez nauk akklaratzeko zer egiten diat hemen». Aitorrek bi deklarazio polizial egin zituen, eta bigarrenaren nik ez nuela ezertan zerikusirik esaten zuten. Soton abokatuarekin elkar-tzean, lehen gauza hori esan zion, bigarren deklarazioa ikusteko, bertan errugabetzen ninduela eta. Baina hau ez zuten idatzi, eta zazpi galdeketa eta bosgarren inkomunikazio egunaren ondoren, irakurri ere ez duzu egiten zer ari zaren sinatzen, moski. Hala eta guztiz ere, epailearen aurrean nik zerikusirik ez dudala esan zuten Aitorrek (Esnaolak).

Nola aurkitu zenuen Aitor Esnaola?

Une horretan duzun pertzepzioa faltsua da. Espetxera euskalduna euforia egoera batean sartzen da. Bizitza iluntzera zoaz, baina poz pozik sartzen zara, gertatuko zitzazun gauzarik ederrena izango balitz bezala da. Bai Aitor Esnaola eta bai ni horrela geunden; elkar ikusten ari ginen, bi euskaldun eta pasatakoak pasa eta gero.

✉ **Gutuna**

Ibarrako garagardo festa: gurea amaitu da

Duela zortzi urte hasi zen gurea. Hasieran, askoren eszeptizismoak ez zuen sinestu gure harremanean. Guk, pasio, zirrara eta bizitasun handiko harreman bati bidea ireki genion (elkarlana eta ilusioarekin helburu handiak ere lortzen dira!).

Oso gustura gaude bitzako esperientziarekin, gurekin batera aritu diren dozenaka ibartar bezala (urtero 200dik gora lagun): muntai lanean, kartelak egiten, sukaldearen berotasunean, barraren zurrunbiloan..., aztarrika latzak eta ostiaren soinuak ondorengo emaitzak gozatzen zituen... Urte bikainak, boluntarioz betetako bi autobus, belaunaldi ezberdinak elkarturik, esker ona erakusteko Lasturrera joaten ginenekoak... Mila esker guztie! Eskerrik asko zuri ere garagardo festa, hainbat talderi bultzadaxo ekonomikoa emateagatik.

Baina, hasierako sua itzaliz joan da, gure ilusioa gutxituz eta noski, zure ekarpena ere neurri berdinean. Hoberena da gureari amaiera sana ematea eta oroitzen on hauekin guztiekin geratzea, penaz bada ere.

Hala ere, herriko talderen batek ilusioz eta gogoz beterik erreleboa hartu nahiko balu, gustura elkarbanatuko genituzke gure esperientzia eta bideratuko genuke jasotako informazioa.

Besterik gabe, mila esker eta ikusiko gara beste proiekturen batean, gurea amaitu baita, baina bizitzak aurrera jarraitzen du.

■ **Ibarrako Garagardo Festako antolatzaileak.** Ibarra



Pasa den urteko jaietan bezala, aurtan ere sagardo dastatzea egingo dute Berastegin. M. UGARTEMENDIA

Bihar hasita, Gazte Festetan murgilduko dira Berastegin

Etzi egingo duten afarian 130 gazte bilduko dira; askotariko ekitaldiak izango dira hiru egunetan zehar

Iñigo Terradillos Berastegi

Bihar hasi eta larunbatera arte jai giroa nagusituko da Berastegin. Urepel gazte elkarteak antolatuta, Gazte Festak ospatuko dituzte, kirola, musika edota afaria bezalako osagaiek hutsik egingo ez dutelarik.

Aurreko urteetako jaiekin aldearatu, aurtengok ez dute aldaketarik handiegirik izango. Uxue Gorostazu Urepel elkarteak kideak azaldu duenez, urtero egitarau antzekoa antolatzen dute, «oso ondo funtzionatzen baitu». Afaria da arrakasta handiena izan ohi duen ekitaldia. Ostiralean egingo den afarirako 130 lagun inguru espero dituzte antolatzaileek. Afaria baino lehen, ordean, arratsaldean ere izango da zer ikusi Berastegin. Izan ere, herriko neska-mutil ugari futbolearen ariko dira Leitzako gazteen aurka. Euskal presoen aldeko ekime-

↓ Egitaraua

MARTXOAK 15, OSTEGUNA

■ **18:00.** Pala txapelketa.

MARTXOAK 16, OSTIRALA

■ **18:00.** Presoen eskubideen aldeko futbol partida. Berastegi Leitzaren aurka. Neskek 30 minutu eta mutilek 30 minutu.
 ■ **Ondoren.** Triki poteoa.
 ■ **21:00.** Herri afaria.
 ■ **00:30.** Kontzertuak: Mariiani-

na izango da hori, eta amaitzean triki poteoa egingo dute. Afaletan, zuzeneko musikaz gozatu ahalko da.

Larunbatean, berriz, mus txapelketaekin hasiko da egitaraua. Hainbat bikote ariko dira jokoa Urepel elkartearen Ondoren, Joxe Mari Carrere oriotarraren bakarriketa saioa izango da. «Sagardo dastatzea jende gehiago gerturatzeko helburuz, aurretik bakarriketa antolatu dugu, herritar guztiei zuzendua», dio Gorostazuk. Villabonako Ingo al deu taldekoen musikak jarriko die azken puntua Gazte Festei.

toz blai eta Kantuki taldeak ariko dira.

MARTXOAK 17, LARUNBATA

■ **15:00.** Mus txapelketa.
 ■ **18:00.** Bakarriketa: Joxe Mari Carrere.
 ■ **19:00.** Sagardo dastatzea eta toka txapelketa.
 ■ **00:00.** Kontzertua Ingo al deu taldearekin.

Berastegiko gazte gehienek hartzen dute parte Gazte Festetan, eta Urepel elkarteak kideak dioenez bezala, «inguruko herrietako gazte asko ere etortzen dira». Bada, herritar guztiak animatzen dituzte Berastegira joatera asteburuan.

Lehendakari aldaketa

Zortzi urte dituen gazte biltokiak urtarrean egin zuen lehendakari aldaketa. Julen Etxeberriak Urko Atxukaroren lekua hartu zuen. Berarekin, beste bost kidek osatzen dute 100 bazkide dituen elkartearen batzordea.

→ Laburrak

Hondurasekin internet bidezko hizketaldia, gaur

IBARRA ▶ Ibarrako misio taldeko egoitzan Hondurasko egoeraren berri izango da gaur, 20:00etatik aurrera. Izan ere, misio taldeak hainbat proiektu gauzatu dituen Suyapa zonaldeko hainbat herritarrekin internet bidezko hartu-eman egingo dute. Misio taldekoek ibartar guztiak gonbidatu dituzte parrokiko lokalera joan daitezkeen euren ekimenak ezagutzera.

'Le Havre' filma ikusgai Leitzan, asteburuan

LEITZA ▶ Aki Kaurismaki zuzendariaren *Le Havre* filma izango da ikusgai asteburuan, Leitzako zinean. Etzi, 22:30ean, eta igandean 19:30ean emango dute, eta 6 euro ordaindu beharko da sarrerarengatik. Denboraldiko azken pelikula izango da, eta atsedenaldiraren ondoren, urrian hasiko dira film berrieekin.

Osoko bilkura egingo dute gaur, 20:00etan hasita

LEABURU ▶ Ohiko osoko bilkura izango da gaur, Leaburu-Txaramako udaletxean. 20:00etan hasiko da.

Guraso elkarteak bi ikastaro antolatu ditu

BERASTEGI ▶ Guraso elkarteak antolatuta, bi ikastarorekin hasiko dira laster. Photoshop ikastaroa astearteetan emango dute, eta ostegunetan 19:45etik 20:45era pintxoak eta bitxiak ikastaroa izango da.

Aste Santuko ludotekan izena emateko aukera

LEABURU ▶ Leaburu-Txaramako Udalak antolatuta, ludoteka izango da Aste Santuan. Bada, herritarrek bihar izango dute bertan izena emateko azken eguna.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldekoko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Ollarrea, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Gelede maskerakusketa Topic zentroan ekainaren 10a arte.
■ **Alegia.** Nerea Ugarteren sormen lanak ikusi daitezke Jubilatuen tabernan, martxoaren 19a bitarte.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●●● agurrak

Herri ekimeneko euskarazko hedabideek erronka komunak aurkeztu dituzte

Diagnostikoa abiapuntu moduan hartuta, erakundeei hausnarketa mahai bateratuak osatzeko deia egin diete

Rebeka Calvo

2011n elkarrekin hasitako bideari jarraiki, herri ekimenek sortutako 46 euskarazko hedabideek agerriald bateratua egin zuten atzo Andoainen, sektorearen diagnostika eta erronka komunak identifikatzeko dituen dokumentua sinatu eta jendaurrean aurkeztuko.

Zentzu hertsian publikoak ez izan arren, funtzio soziala dutela gogorarazi zuten euskarazko hedabideen ordezkariak, «bai euskararen garapenean dugun zeregin funtsezkoagatik, bai eskal hitzunen komunitatearen baitan komunikazioa lantzeak eta jorratzeak suposatzen duenagatik».

Zailtasunak erabileran

Azken 25 urteetan, batez ere, hezkuntza dela eta, urrats handia eman da euskararen ezagutzaren eremuan, horretan ez da zalantzarik. Erabileran, aldiz, hizkuntzaren osasuna adierazten duen neurgailurik zehatzenean, zailtasun handiak daudela gogoratu zuten agerraldian. «Hiztun komunitate guztiek dute mundua beren hizkuntzan ikusteko eta kontatzeko beharra, eta euskarazko hedabideak giltzarri den zeregin horren muinean daude. Euskaraz ez badugu egiten, beste hiztun komunitate batzuek egingo dute gure ordezkariak, frantsesez edo ingelesez», esan zuten.

Sektorearen pisu sozial eta kulturalarekin batera, ekonomikoa ere ekarri zuten gogora: euskarazko hedabideen lana 450.000 lagunengana iristen da, eta horretarako 600 langile baino gehiago ari dira lanean 100dik gora hedabideetan. Guztira 27 milioi eurotik gorako aurrekontua mugitzen dute urtean, eta 7 milioi eurotik gorako ekarpena eginen dute diru publikoetara, gizarte segurantzaren zergen bidez. Ikuspuntu horretatik ere, haien jardunaren garrantzia azpimarratu eta kontuan hartu izan dadin eskatu zuten euskarazko hedabideek.

Izan ere, ezagun da Informazio



Euskarazko hedabideak Martin Ugalde kultur parkean bildu ziren. HITZA

eta Komunikazio Teknologien hedapenak zer-nolako krisi sakona ekarri duen mundu osoan komunikazioaren sektoreri, eta 2008az geroztik dagoen krisi ekonomikoak aurreko hori areagotu besterik ez duela egin.

Zentzu honetan orain gutxi itxi behar izan dituzten komunikabideak ekarri zituzten gogora: Ttipi-Ttapa telebista, Geu Gasteiz, Txaparro, Eсан-Erran irratia, Nabarra...

Gogoeta estrategikoa

Kontuak kontu, euskarazko hedabideek azpimarratu nahi izan zuten testuinguru zail horretan etorkizunari buruzko gogoeta estrategikoa elkarrekin egiteko ahalegina, eta eskertu Gipuzkoa Berritzen-Innobasquek gogoeta horretan laguntzeko erakutsitako prestutasuna. Elkarlan horren emaitza hedabideek atzo sinatutako dokumentua da. Agi-

↓ Hedabideak

46

■ **Atxikimendua.** Momentuz 46 komunikabidek egin dute bat sektorearen diagnostika eta erronka komunak identifikatzeko dituen dokumentuarekin.

riak sektorearen gaur egungo ardurak zehatza aurkezten du eta, horretan oinarrituta, aurrera begirako erronka nagusiak proposatzen ditu. «Herri ekimeneko euskarazko hedabideen ustez garraia da erronka horiei sendotasunez heltzeko, eta beste molde eta bide batzuk jorratzeko, irudimena landuz, gogotik arituz eta batez ere elkarlanean, hedabideen artean, zein erakunde publikoekin eta jendartearekin berarekin ere», esan zuten.

Hala, atzo aurkeztutako lana, bide baten amaiera baino, bide luze baten hasiera dela azpimarratu zuten hedabideen bozeramaileek. Dokumentua sinatzearen bitartean, herri ekimeneko euskarazko hedabideen etorkizun hurbila zein urruna bermatu nahi duen elkarlana abiatu dute, sektore antolatua gisa funtzionatzen hasi ahal izateko lehen harria.

Sektore hori eguneratzeko, gogoeta egin nahi dute herri ekimeneko euskarazko hedabideek, erabiltzaileekin, eragileekin eta administrazioekin batera.

Horregatik, sinatutako dokumentua hartarako prestutasuna agertu duten erakundeetan aurkeztuko dute hedabideek, gogotarako oinarri baliotsua izan daitekeelakoan.

Erakundeei, bide horretatik, hausnarketa mahai bateratua eratzeko deia egin zieten.

↓ Erroka nagusiak

AGIRIAREN LABURPENA

■ **Negoio eredu eta lan baldintzak.** Hedabideek inbertsio handiak egin behar dituzte (eta egiten ari dira), batetik, teknologiak eragindako negozio ereduaren aldaketari aurre egiteko, eta bestetik, bertan diharduten langileen lan baldintzak hobetze aldera.

■ **Salmenta, kalitatea eta lehiakortasuna.** Atzean ez gertatzen diren bereziki merezi duten zerbitzua eta produktuak eskaintzeko, euskarazko hedabideek egozten dituzten produktuen kalitatea eta kudeaketa ere hobetu behar dute.

Gaur egungo produktuak estimatzen badira ere, salmantan eta merkatu mekanismoen ezagutzan asko sakondu behar da.

■ **Hausnarketa eta ikerketa.** Etengabeko berrikuntzaren aroan, ikerketa eta hausnarketa ere ezin ahaztu: euskarazko hedabideak zer diren, zer helburu bete behar duten, nolakoak diren eta izan behar duten, audientziak, kanpoko esperientziatik ikastea eta, helburuak betetzeko doazen heinean, beste hizkuntzetan aplikatzeko moduko esperientzia eta produktuak esportatzeko. Hori dena aratu ahal izateko, hedabideen behatoki baten beharra nabarmendu dute hedabideek.

■ **Elkarlana.** Garai zaili bakar bako bako taldean hobeto egiten zaie aurre eta alde horretatik badute zer landu hedabideek, beraien artean zein instituzioekin batera. Sektoreko kideek onartzen dute elkarren lehiakide direla hainbat eta hainbat kasutan, baina elkarrekin ere jardun dezaketela guztion onurarako; elkarlana landu behar dutela, alegia.

■ **Erakunde laguntza politika.** Deialdien sistematik hitzarmen ereduera joatea ezinbesteko ikusten da. Beharrezkoa da erakundeek laguntza politika egokitzeko eta sektorearen inbertsioak eta garapena sustatzeko.